



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA  
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

[www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)

<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

### **BMF-ko BATZAR OROKOR ARRUNTAREN AKTA**

Bilbon 2015eko abenduaren 17an, arratsaldeko 19etan bigarren deialdian BMF-ko Batzar Orokor Arrunta izan da.

BMF-ko lehendakaria, buru gisa : Jose Ramón Alonso, BMF-ko idazkaria : M<sup>a</sup> Carmen Merino idazkari gisa erea jokatu. Batzar nagusiko kide diren: Victor Vivar, Txomin Garcia eta Ricardo Hernani bertan egonik.

#### **BERTARATUAK:**

##### **KLUBAK:**

Alpino Tabira M.T., Alluitz M.T., Arroletza G.A., Artarrai G.M., Aurrera S.M., Baskonia M.T, Beraskola, Bidelagun, Burtotza M.T, C.O. Bidea, Egunsentia C.M., Encartaciones S.M., Gailurra M.T., Gallarraga G.A., Gallarreta C.A., Ganerantz M.T., , Ganzabal M.T., Goigain M.T. , Goiko Mendi G.A., Juventus S.D., Leioa M.T., Lezama Gailur M.T., Deustuko Menditarrak., Munarrikolanda M.T., Sdad Montañera; Sollube 707 Bermeoko M.T., Txarlazo M.T. y, Untza M. T. y Zulu M.T. Gonbidatu gisa ( boturik gabekoa ) Atzazpe M.T. Total (guztira 29 klub botu-eskubidearekin, hots, 72 botu)

##### **KIROLARIAK:**

Agustín Otaola, Rodolfo Ituiño, Ricardo Hernani, José Ramón Alonso, Txaro Iglesias, Jon Iñaki Uriarte eta Víctor Vivar. Guztira (7 kirolari 7 botu)

Idazkariak gerturatutakoei ongi etorria ematen die, bere asistentzia eskertuz. 29 klubek Batzarrean botorako eskubidearekin parte hartzen dutela komunikatzen du, kirolarien 7 ordezkari 79 botoekin, gehi 8 gonbidatu (botorik gabe).

#### **BATZARRAREN OSAKETA:**

Lehendakariak Batzarra baliozkotasunez osatzen dela informatzen du, Federazioaren Estatutu etako 20. artikuluan jasotakoarekin ados, Idazkariak, erraztutako datuak ikusita. Ondoren, deialdiaren gai-zerrendan sartutako gaiei bide ematen zaie, BMF-Estatutu etako 19. artikulua begiesten duen bezala, Gai-Zerrendaren barruan beste inongo gairik ez dela jaso informatuz.

Deialdiarekin batera guztiei igorritako 2015eko martxoaren 26ko Batzarraren akta aho batez onartzen da; biltzarkide batek akta bidaltzerakoan aipaturiko hitza goiburu bezala jar dezagun adierazten digu.

Pasa den 2015/01/22 Batzarrak onartutako bi Araudiak, DFB aurrean tramitatu zirela informatzen digu Txominek. Apirileko 13-an Kulturako Foru-Diputatuaren Foru-Aginduak Aterpearen Barne-Araudia onartu du, geroago Kirol-Entitateko Erregistroan inskribatu da. Hala ere, Kluben Alta eta Bajen Araudia inskribatzen saiatzerakoan, Diputatu berak izapidea ukatu du. Ukatzearen arrazoia, federazio-integrazioarekin eta lizentzia-erregimenarekin zerikusia duen guztia Euskal Mendi Federazioaren kompetentzia dela oinarritzen da eta ez Lurralde-Federazioena. Gertaera hauek ikusita, elkartutakoei pasa den Azaroaren 7an gertatutakoa gogoratzen zaie, orduan EMFak bere Batzarrean, urte askotan egiteko zain zeuden, lizentzia federatiboan Barne-Araudia onartu zuen. Araudi honek, klub berrien barneratze-araudia zein Lurralde-Federazioen funtzioen delegazioen inguruan datza. Gertakizun hauek kontuan harturik, nahiz eta premia zkoa ez izan, gai



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA  
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

[www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)

<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

honekin zerikusia duen gure Barne-Araudia eta BMF-ko Estatutuen egokitzapena araudiaren egoera berrira pendiente geratzen da.

Geroago hiru klubek BMF-an alta eskatu dutela jakinarazten du, eta behin dokumentazioa aztertu eta zuzena dela ikusita, onartzen dira. Bakoitzaren lehendakariak parte hartzen dute klub berrien helburuak zeintzuk diren azalduz, hauen izenak ondorengoak dira: Gorkun1970 Leioa-ko Kirol Kluba; Durangoko Trail Erraz-Team Bizkaia Kirol Kluba; eta Sestaoko Harrapariak Mendi Kluba.

Ricardo-k, web-orriaren berritze eta Facebooken gaurkutzeko kanpaina bizia egiten ari dela informatzen du, federatuei eta mendi-klubei etengabeko informazioa iristeko asmoz. Facebookek 550 jarraitzaileak gainditzen ditu.

Bizkaiko lurraldeko bideen legezko egoeraren eguneratzeko jardueren barruan, uztailean azkenik bide motzeko 16 ibilbide deshomologatu ziren, hauen sustatzaileek (Eusko Jaurlaritzak, Berrizeko Udala eta ADR Urremendi) egoera irregularrean eta mantenerik gabe urteen ondoren egon ondoren, birhomologatzeari buruzko interesik ez zutelako erakutsi.

Aitzitik, aurtengo azaroaren 30ean, 73 bideen sustatzaileek hauen birhomologazioa ofizialki eskatu zuten, hauen behin betiko deskatalogazioa saihesteko. Ondoren, egoera hurrengoa izan da:

- Gorbeialdea-k 28 PR ibilbide zituen. Hauen sustatzaileak, ADR Gorbeialdea-k, aipaturiko data eta gero, eta hasierako jarreraren aurka, bideen sustatzaile bezala ez jarraitzea erabaki du. BMF-ak, eragindako eskualdeko udaletara hainbat bileratara deitu eta informatuta mantendu ditu (Zeanuri, Areatza, Artea, Zeberio, Arantzazu, Orozko, Dima eta Otxandio). Otxandio-ko udalak bere 2 PR ibilbideen sustatzaile izatea erabaki du, Zeberio-k bere aldetik, PR 11 bidea bere aldaerekin birhomologatzea aukeratu du, bere 12 eta 13 ibilbideak kanporatuz. Zeanuri-k 1a eta 2a birhomologatuko ditu, Areatzak 9a, eta azkenik Orozko 33a, 34a eta 35a. Gainerako udalen partetik, bere udalengatik pasatzen diren bideak bultzatzeko erantzukizuna legalki onartzeko interesaren berririk ez dago.

-Ermua, Arrigorriaga, Zamudio, Alonsotegi, Zaldibar, Barakaldo, Lea Artibaiko udalak eta Urdaibai-ko patronatua bere bideen birhomologazioan erritmo onean lan egiten ari dira, proiektu zehatzarekin eta giza zein baliabide ekonomikoaren esleipenarekin.

- Aurrekoagatik 53 PR bideen birhomologazio eraginkorrean lantzen ari da Bizkaian homologatutako 25 bideetara gehituz.

BMF-aren asmoa mendi-ibiliekin konprometitutako sustatzaile haientzako, bere mendi-ibili teknikarien bitartez, hauen bideak kontserbazio egoera onean mantentzea eta legeak markatzen dituen legezko eskakizunek egunean izan dezaten alde agertzen jarraitzea da. Aldiz, aurreko bi baldintzatzaileak bete ez dituzten sustatzaileek beraien bideen deshomologazioa jasango dute. Konponbideak aurkitzeko asmoz, bide bat sustatzaileaz aldatu duen kasuan, sustatzaile berriei 3-6 hilabeteko luzapena ematen ari zaie.

Víctorrek hitza hartzen du, C.O bidea-ko lagunen kolaborazioarekin, 4 Eguneko Orientazio jardunaldi egin direla informatuz, parte-hartzea oso urria izan da klubaren aldetik, 75 posibletik, 15 klubek baino ez dute egindako hiru jardunaldietan parte hartu, guztira 70 pertsona izanik.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA  
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

[www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)

<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

Gorbeia-ko Aterpeari (Angel Sopeña) dagokionez, gaurko zaindarien aldetik eta BMF-arekin kolaborazioan, aterpeko barne-erreforma osoa egin dute oso bereziki tximinia sukalde zonan, ikasgela didaktikoko egokitzapena etab., BMF-ak Zeanuri-ko Udalarekin aterpearen kudeaketarako lagapen kontratua 20 urtera luzatzen du, zaindaria egin dituen kontratuko gehigarriari irakurketa ematen dio. Menditarrak-en ordezkaria parte hartzen du, batzarrari halako tamainaren lan baten gainean informatu behar zaiola izango litzatekeela esanez, Zuzendaritza Batzordeak eta gerturatutako beste biltzarkide batek hórrela izan dela erantzuten dute, baita aurreko batzarreko berezko zaindaria xehetasun handiagoak emateko asmoz parte hartu zuela ere aipatuz.

Bide-teknikari ikastaroa gorabehera korapilatsuak sufritu arren eta bere errealizaziorako izapide astunak egin behar izan onodren, azkenean datozen egunetan hasiko dela komunikatzen du.

Aurten, diru-laguntzei dagokione, jardueragatik emango dira, ez federatu bakoitzeko, aurreko urteetan bezela, oinarri guztiak web-orrian daude.

Joserra-k, Zuzendaritza Batzordean bi dimisio izan direla komunikatzen du, Mikel Barcenillak apirilaren 23an eta Matide Sanz, Maiatzaren 21ean, biak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroari komunikatuak izan dira.

Postontzien gaineko araudia landu da, bai existitzen diren hondatutako gutunontzien aldaketarako ekimenak arautzeko, bai berriak jartzeko. Araudi hau klubetara bidali da eta Federazioaren web-orrian aurki daiteke.

Biltzarkide batek hitza hartzen du, aktak web-orrian eseki beharko liratekela esanez, Zuzendaritza Batzordeak, hauek Batzarraz behin onartuta, hórrela egingo dela erantzuten dio.

Gai gehiagorik gabe Batzarra amaitutzat hartzen da.

**Sinatuta: M<sup>a</sup> Carmen Merino**  
**Idazkaria**

**Sinatuta: José Ramón Alonso**  
**Presidentea**